



Baserrien historia eta arkitektura aztergai

AMASA-VILLABONA ▶ Kultur taldeak ekitaldiak antolatu ditu bihar baserriak hobeto ezagutzeko

EGITARAUA ▶ Herriko sei baserri bisitatuko dituzte eta Juantxo Agirrek hitzaldia emango du ▶ 7



Amasako Larrañaga baserria —irudian— bisitatuko dute. N. GARZIA



N. GARZIA

Oriako marinelak «sendotuz doaz»

TOLOSA ▶ Tolosaldeko Arraun Klubeko ordezkariak «arrauna zabaldu nahi dute eskualdean, bertakoa den kirola ezagutarazteko» ▶ 4-5

ZOS
soinu ikastaroa
Informatika musikala (Cubase)
Grabaketa eta masterizazio profesionala.
P.A. eta monitoriak
Eta aber
943 65 35 35
www.sointek.net

DR. JOSE GISASOLA
D.M. (Dietista)
OSTEOPATIA MEDIKUA
BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA
Lumbalgia, Hernia Diskala, Ziatika
Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia,
Buruhezur-aurpegiko mina, ATM
Nafarroa Etorbidea, 11 / 20400 Tolosa (Irupekoa) / T 943 451 422

GAUR Zinema etxean 2
Mintagorri
8 DVD euskaraz
Berria
+ 4,50 €
Aukera ezazu, bizi euskaraz berria

AISIA ▶

Zilarrezko ezteiak aisialdian

Hogeita bost urte betetzen ditu aurten Tolosako Atsedena aisialdi taldeak; urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte taldekideentzat, kide ohientzat eta baita edozein tolosarrentzat ere

NEREA LIZARTZA

Zilarrezko Ezteiak beteko ditu aurten Tolosako Atsedena astialdi taldeak; hogeita bost urte hauetan zehar hainbat ekintza eginak dituzte eta herriko makina bat jende hartu du horietan parte. Talde honen historia ezagutzeko laurogeigarren hamarraldira atzera egitekoa beharrezkoa da. Urte horietan Donostiako Elizak bizi zuen kontestuan sortu zen; garai hartan sendotza eta gaztetxentzat aisialdia bultzatzea zuen jomuga taldeak. Hala ere, taldea aldatzen joan den bezala, helburuek ere aldaketak izan dituzte. Gaur egun Santa Maria Parrokiako heziketa gunea izatea du xede nagusia.

Donostiako Elizaren giroan, 1982ko Pazko astean begirale ikastaro bat antolatu zuten sendotzan zebiltzan gazteei zuzenduta. Modu horretan, garai hartan Santa Maria Parrokiako apaizak, Juan Mari Olaetxeak, eta begirale ikastaroan parte hartutako begirale talde batek bultzatuta sortu zen Atsedena. Astialdi talde sortu berriaren egiteko nagusia parrokiako ekintzak eta heziketaren arloak lantzea izan zen.

Edonola ere, taldea handitzen hasi zen eta eginkizunak zabaldu behar zituztela konturatu ziren. Ondorioz, «comisión de recreo» zeritzana sortu zuten katekesiko haurrentzat ekitaldiak antolatzeko.

Gaur arteko ibilbidea

Atsedena abian urte batzuk zeramatzanean, Susperketa Sozio-Kulturala izena eman zioten asialdia deitu beharrean. Era berean, konturatu ziren sendotza egin ostean taldeak jarraipenik ez zuela eta agian komeniko litzatekeela jendeari hori eskaitzea. Modu horretan, bilera batera bildu ziren katekesiko komisioa, Astialdia, Sendotzako taldeak, Gazte Komisioa eta Guraso Komisioa, eta «Atsedena» ekintzak iraunkortzea erabaki zuten.

1998an sei hilabeko geldiduna izan zuen taldeak proiektu berria egiteko; Fede Heziketako prozesu osoa definitu behar zuten, errealitatearen azterketa egin eta helburuak eta edukia zehaztu. Era berean Jose Ignacio Eguzkitzak, 12 urteko taldeko arduradun izandako-



Goian, gaur egungo kanpaldian ateratako argazkia. Behean, duela urte batzuk irteera batean. HITZA

ak, parrokiak utzi zuen eta ondorioz, baita Atsedena taldea ere.

Urterik gogorrenak 1999-2000. urtean etorri ziren; apaiza joan ostean, begirale askok taldea utzi zuten eta hiruzpalau besterik ez ziren izan taldean jarraitu zuten monitoreak. Krisiari aurre egin asmoz, Atsedena arduradunek erabaki zuten taldean jende gehiago sartzeko deialdirik ez egitea; zeudenak (sendotzako bi talde, astialdiko zaharren taldea eta gazteen taldea) ahal ziren hobe mantentzeko urte horretan, behintzat. Izan ere, begirale gutxi zeudenez, ezinez-

koa zen talde handi bat aurrera ateratzea.

Hala ere, datorren ikasturtean berpizten hasi zen Atsedena. Bi apaiz berri etorri ziren Tolosara, zehazki Santa Maria parrokiara, Imanol Aldaregia eta Iñaki Amutsastegi; horiek etortzearekin batera taldearen egoera asko hobetu zen. Egoera on hori gaur arte luzatu zaie eta egun ere ederki dirau taldeak.

Haatik, Atsedena helburu nagusia Santa Maria parrokiako heziketa gunea izatea den arren, taldeko kideek azaldu dituzte, «herriko errealitateari irekiak gaude» eta «Tolo-

sako gainontzeko taldeekin elkarlanean ari gara». Heziketa erateko Jesusengan agertzen zaien gizaki eta gizarte ereduak bultzatzen dituzte.

Taldeak

Bost talde daude Atsedena taldearen baitan; guztiak beti ere, adinaren arabera banatuta. Txikienak, 9 urtetik 11 urte bitartekoak dira. Hauek normalean Santa Maria elizako katekesian izena ematen dutenak izan ohi dira. Beraz, lehen kontaktua izan ohi dute taldearekin adin horretan, hemen has-

ten baitira haurrak Atsedena heziketa prozesuan parte hartzen, nahi badute aktiboki edota nahi izanez gero, aldian behin.

Gaztekoen taldean, bestalde, 11tik 16 urtera bitartekoak elkartzeko dira. Normalean gaztekoen taldekoek Atsedena parte hartu ohi izaten dute aurreko urteetan, eta taldean jarraitzeko aukera ere ematen zaie; hori izaten da adin honetako helburua, jendeak taldeko ekintzetan parte hartzen jarraitzea. Ostiralero elkartzeko dira bertako kideak euren taldekideekin eta begiraleekin batera jolas edo ekintza desberdinak egiteko.

Gazteen taldean, ostera, jendea taldean ardurak hartzen hasten da. Jada adinean aurrera egin dutenez, taldean ardurak hartzeko konprometua hartzen dute gehienek. Beraz, 16tik 19 urtera bitartean begirale izaten hasteko aukera ematen zaie taldekideei. Talde honetako kideak sendotza egiteko prestaketetan egoten dira; beraz, hurrengo taldera pasatzen dira sendotzaren sakramentua jaso ostean.

Gazte-helduen taldea deiturikoan 19tik 22 urtera bitartekoak elkartzeko dira eta hauek dira gainerako taldeen erreferentzia. Era berean, talde honetako partaideen ardurak handitzen joaten dira.

Azkenik, helduen taldea dago; sendotza egin ostean Atsedena jarraitzen dutenak.

Beraz, gutxi gorabehera hogeita bi urtetatik aurrerakoak. Hainbat parte hartzen normalean: beharren arabera taldeko ekintzetan eta antolaketan aritzen baitira.

Kontuan izan behar da, baina, talde bakoitzean hainbat arduradun egoten direla Atsedenen funtzionamendua ongi koordinatzeko.

Finantzazioa

Bi iturri nagusi dituzte; batetik, hainbat erakundetatik jasotako dirulaguntzak daude. Diputazioak kanpaldirako laguntza ematen baitie. Gainera, Tolosako Udalak ere Inauterietarako eta urteko hainbat ekintzetarako laguntza ekonomikoa ere ematen die. Edonola ere, beste laguntza batzuk ere izan ohi dituzte baina hauek ez dira finkoak, kasuan kasukoak baizik.

Bestetik, ostera, autofinantzaketa dago. Taldean parte hartzen dutenek ordaintzen duten kuota, materialaren salmenta eta ekintzetan parte hartzeko jendeak ordaintzen duena dira nagusiki lortzen dituztenak.

Urtero egiten dituzten ekintza batzuk finkoak diren arren, badaude beste batzuk noizean behinekoak izaten direnak; esaterako, asteburupasak, egun pasak, gabonetako ekintza bereziak, etab. Finkoen artean, ostera, Inauteriak, Txirrin-Txarran, Atsedena Eguna edo Parrokia Eguna eta kanpaldia daude. Taldekideek azaldu duten bezala «berezi-na kanpaldia izan ohi da, jende askoren sentimenduak eta bizipenak konpartitzeko parada eskaintzen duelako».

Dударик ez dago baina, aurtengoa urte berezia dutela taldean. Egitarau oparoa antolatuta dute behar den moduan ospa dezaten Atsedena astialdi taldeak 25 urte betetzen dituela. Ekintzaz beteriko urteurren honetan aspertzeko betarik ez dute izango Atsedena taldean daudenean, egon direnek edota ospakizunetan parte hartu nahi dutenek. Beraz, Zorionak guztiei eta bejion deie!

UNAI UBERETAGOENA ▶ ATSEDENA TALDEKO ARDURADUNA

«Ilusio handiz ari gara bizitzen taldearen 25. urteurrena»

Urte mordo daramatza Unai Uberetagoenak (Anoeta, 1980) Atsedena taldean. Denboraldi onak eta txarrak bizitzea tokatu zaion arren, gustura jarraitzen du taldean; bera da gainera, taldeko arduraduna. Pozik agertu da urteurrenarekin eta urte hauetan zehar bizitutakorekin gainera balorazioa egin dio HITZARI.

Zenbat urte daramatzazu Atsedenan?

Lehenengo udalduketara hamar urterekin joan nintzen; beraz, duela hamasei urte hasi nintzen taldearekin lehen harremanak izaten. Kontuan izan behar da ni garai hartan Anoetan bizi nintzela eta ez zela erraza Tolosako talde batean egotea.

Taldean haurra izan zara eta orain begirale zara; zein aldaketa nabaritu dituzu haurra izatetik monitorea izatera?

Haurra zaren taldera ongi pasatzea besterik ez zara joaten; gainontzeko guztia ez zaizu axola. Aldiz, monitorea izanda, pixkanaka ardurak hartzen dituztu; hasieran oso ardua gutxi hartu arren, esperientzia hartzen zoazen heinean gero eta pisu gehiago erortzen da bakoitzarengan. Hori da desberdintasun nagusia.

Urte mordo daramatzazu taldean et Atsedena aldaketak izan ditu; zein dira gehien nabaritu dituzunak?

Ni Atsedenan sartu nintzen oso begirale gutxi zeuden; momentu honetan, ostera, gutxi gorabehera hogeitaz begirale gaude. Alde horretatik aldaketa nabarmena izan du taldeak, handitzen ari gara pixkanaka. Bestela, ez dut aldaketa handiegirik nabaritzen.

Erraza al da hurrekin lan egitea?

Oso erraza da. Ni 9 urtetik 11 urte bitarteko hurrekin aritu naiz urte hauetan guztietan la-



NEREA LIZARTZA

nean eta oso gustura nago. Hala ere, edozein mailetako hurrekin ariko nintzateke gustura lanean.

Haurrak esker onekoak dira egiten duzun lanarekin?

Beti ez, baina orokorrean bai. Hori ekintzaren araberakoa da. Euren gustuko ekintza antolatzen badugu gustura gelditzen dira, baina, prestatzen duguna ez bazaie gustatzen, ez dira esker onez portatzen gurekin. Gainera, ekintzetara ere beti ez da jende kopuru bera joaten; batzuetan agian hamar pertsona azaltzen dira eta beste batzuetan, berri, hogeita hamar.

Krisi egoera bat ere pasa zenuen orain dela urte gutxi; nola oroitzen duzu garai hura? Taldea amaituko zela pentsatu al zenuen?

Gogorra izan zen; lau begirale bakarrik gelditu ginen taldearekin, gainontzekoek arrazoiz ezberdinengatik utzi egin zutelako. Ez genuen taldean sartzeko deialdi berririk egin, nahikoa geneukalako geneuz-

kan taldeak aurrera ateratzearekin. Baina, gero sendotza amaitzen ari ziren hainbat gazte pixkanaka begirale bezala hasi ziren eta horrela, guztien laguntzarekin taldeak aurrera jarraitu zuen.

Gaur egungo haurrek eta orain dela hogeitaz urtetakoek, zein desberdintasun dituzte?

Desberdintasuna badago berrez; oro har, alde materialekoa da. Gaur egun, askoz gauza gehiago baitituzte haurrek eskura. Hala ere, guk kanpaldietara joandakoan edo hemen egiten ditugun bileretan beti bultzatu izan dugu bideo-jokorik edo antzekorik gabe ondo pasatzea. Gakoa heziketa ona ematean dago.

Esaten duzu kanpaldia dela zuretzat Atsedena ekin-tzarik indartsuena eta atseginena; zergatik?

Oso esperientzia pertsonala delako. Mendian egon ohi gara, hainbat egunez kanpin denden antzeko «txabola» batzuetan lo eginez. Bakoitzak beharrezkoa duguna besterik

ez dugu eramaten; hori bultzatu nahi izaten dugu taldeko begiraleok.

Gainera, hiru egunetan zehar menditik barrena «ruta» deritzoguna ere egiten dugu. Oso irteera polita izaten da bai guretzat, begiraleentzat, baina baita haurrentzat ere; ekintzaz beteriko egunak antolatzen ditugu eta guztiok ederki pasatzen dugu.

Urteurrenari begira, nola bizi duzue taldean hogeita bost urte betetzea?

Ilusio handiz. Taldean denok bizi dugu pozez aurtengo urtea.

Lan gogorra egongo da ospakizunen atzean...

Ba bai. Hasieran ez zuen hain gogorra ematen baina ekintzak antolatzen hasten zaren konturatzat zara aste baino lan gehiago dagoela egiteko. Hala ere, gustura gabilta antolaketan, urteurren honek mezezi baitu horrelako ekintzak egitea.

Ekintzen artean zein da bereziena?

Nire ustez bi dira bereziak. Batetik, bertso afariarena dago; lehenengo aldian herri guztiari zabaldutako ekitaldi bat egiten dugula eta nik berezi sentitzen dut. Gainera, bertso-larritza oso gustuko dut eta hortaz, are gusturago nago. Hala ere, ekintzak talde mailan ikusiz gero, Atsedena Eguna da bereziena. Duela hogeita bost urtetatik gaur arte taldeak pasatu diren begiraleak elkartuko gara eta oso egun berezia izango da guretzat.

Nola ikusten diozu etorkizuna taldeari?

Ondo. Duela urte batzuk denboraldi txarra pasa genuen arren, orain hartu duen martxarekin baikor ikusten dut taldea. Gazte asko daude eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Gainera, oso talde jatorria osatzen dugu guztien artean; beraz, oraindik hainbat urtetan behintzat jarraipena izango duela taldeak espero dut. Alde horretatik oso itxaropentsu gaude. ◀

EGITARAUA ▶ 25. URTEURRENAKO OSPAKIZUNAK

Ondoko ekintzok antolatuta dituzte urteurrena ospatzeko:

ABENDUAK 16

Bertso Afaria.

▶ Andoni Egaña eta Sustrai Kolina bertsolariak ariko dira bertsoetan, afaria alaitzen. Ekitaldia Santa Maria Parrokiako lokalean izango da.
▶ Txartelak: Santa Maria

kalean dagoen Mujika tabernan daude salgai edonorentzat 20 euren truke.

OTSAILAK 19

Inauteriak.

▶ Datoren Inauterietan taldearen urteurrena ospatzeko festaz jantziko dira taldekideak. Orain arte taldeak atera dituen jantziek ere izango dute lekurik.

▶ Izena eman nahi duenak abenduaren 22an 19:30etik 20:00etara Santa Mariako parrokiara exera joan beharko du.

APIRILAK 22

Txirrin Txarran.

▶ Gipuzkoako Parrokietak aisialdiko taldeak biltzen dituen urteroko ekintza izan ohi da

hau. Normalean Gipuzkoako toki ezberdinetan ospatzen den arren, aurtun Atsedena 25 urte betetzen dituela aprobetxatuz, Tolosan egongo dute festaren ospakizuna. Atsedena taldeak parte-hartzailei proposatu zieten euren ideia eta baiezkotza lortu zuten. Gipuzkoako osoko taldeak etorriko dira.

MAIATZAK 27

Atsedena Eguna.

▶ Urte hauetan guztietan zehar Atsedena taldean parte hartu duten haiei guztiei zuzendutako eguna izango da hau. Egun hau, beraz, taldea aurrera ateratzen lagundu dutenentzat izango da eta antolatzailerik ez zutenen esanetan ekintza guztietan «berezi» ere bada.

ARRAUNA ▶

LEIRE MONTES

Udazkeneko egun eurtsu eta hezea da, eta ez dabil jende asko kalean. Ibiltsuna eta bakardadea dira nagusi Zerkasniaren barruan eta gutaldiaren, Aspaldien, ordea, hizi-bizirik dago. Tolosaldeko Arraun Klubeak (TAK) ematen baitote arratsaldero boza. Taldeko hainbat ordezkarik eta entrenatzaile elkartu dira Ori ertzeko arkupeetan. Arratsalde horretan egin beharrez, dituzten instalazioak eta aurrera begirako asmoez ari dira, besteak beste. Biltzean, neska-mutil gazteak hasi dira korrika, luzapenak egiten, abdominalak, flexioak... Eta auzar tenak, Gazteluko eskifaisa, batela hartu eta uretara doaz, arraun egitera.

TAKeko arduradunak pozik dira, 2006a taldearen sendotza urtea izan delako. Baina korrontearen kontra arraun egitea ere egokitu zaie askotan. «Ei urte duzuenatzen Tolosaldeko Udalarekin hitz egiten, sei bileta egin ditugu, lau plano desberdin aurkeztu dizuegu... Askotan truztzen saiatu guk atzetik ibili behar dugula, eta ez dituztela gaszak egiten egin beharke litzatekeen moduan», diote ordezkariek. Depon inplikazioa beharrezkotzat jotzen dute TAKeko arraunariako zaletasunak Tolosan eta eskualdean bizirik jarrai dezan.

Isturburua begira

1930. urteaz geroztik egiten da arraun, Tolosan. Iehiaketa erin. Hamarkada joan hamarkada etorri, 1988ra arte Oriako batel estropadak etenik gabe egin ziren. «Herriko elkarte batzuk ziren bere batela eta arraunariak, minoz zaindu eta gartsu animatzen zituztenak».



Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) ordezkariek pozik dira, 2006a sendotza urtea izan delako; baina korrontearen kontra arraun egitea ere egokitu zaie askotan



Arraunariak, Koldo Perez eta Iñaki Saizar entrenatzaileen aginduetara. L. MONTES



Batelak, Zerkasni azpian, uretara iristeko zain. L. MONTES

1983ko uhaldien ondoren agintariak presa neurritz murriztea erabaki zuten. Hala, ur emaria nabarmen jaitsi zen, eta ezinezkoa zen arraun egitea. 2000. urtera arte. Orduan zaletu talde batek Oriari berriro arraunari arimotz samoa bere egin zuten. «Luzorron zegoen Tolosaldeko arraun zaletasuna berpiztu egin zen, eta boia batelak bete zen. Jendearen grina ikusirik, eta nahiz eta azpiegiturak ez izan, sanjoneariak batel estropadak antolatu ziren berriro, eta lau talde lehiatu ziren».

HELBURUAK

«Tolosaldean zabaldu nahi dugu arrauna, eta aukera eman kirol berri bat, desberdina eta bertakoa, ezagutzeko» PRESA

«Bistan da presaren proiektua ezinbestekoa dela etorkizunerako; horregatik, lehentasuna izan behar du»

LAGUNTZA

«Kolaboratzaileen beharra dugu. Arrauna gustatuz gero, badago nahiko entretenimendu»

DATUAK ▶



Sanjoneariako estropadak. HITZ

Taldea, TAK, Tolosaldeko Arraun Kluba. Lehendakaria, Sabino Aljopiles. Lehendakariordea, Iñaki Cruz. Aholkulari teknikoa, Angel Lara, Koldo Perez, Julian Gorostolaga, Angel Ortiz. Federatuak, 150etik gora.

ra, Villabonara ere hedatu da zaletasuna: Udalaren eta TAK-en artean Sario jaietako estropadak antolatu genduzen, eta zortzi batelak hartu zuten parte».

2006KO LEHIETAN PARTE-HARTZEA ▶

GARONETAKO ESTROPADAK Tolosa, 10 talde (batelak). Oriaren JAITSIERA Orio, 2 talde (batelak).

GIPUZKOAKO LIGA Trintzerpe, 10 talde (batelak). Orio, 9 talde (batelak). Getaria, 11 talde (batelak). Zumaia, 12 talde (batelak). Zokoia, 13 talde (batelak). Pasaia, 9 talde (batelak).

GIPUZKOAKO TXAPELKETA Pasaia San Pedro, 6 talde (batelak). Pasaia San Pedro, 5 talde (batelak).

EUSKADIKO TXAPELKETA Zokoia, 3 talde (batelak). Zokoia, 4 talde (batelak).

ESPAINIAKO TXAPELKETA Sestao, Talde 1 (batelak). Sestao, Talde 1 (batelak).

GIPUZKOAKO LIGA Mutriku, Talde 1 (trainerilla). Mutriku, Talde 1 (trainerilla). Pasaia Donibane, Talde 1 (trainerilla). Hondarribia, Talde 1 (trainerilla). Orio, Talde 1 (trainerilla).

GIPUZKOAKO TXAPELKETA Getaria, Talde 1 (trainerilla). Getaria, Talde 1 (trainerilla).

SANJOANETAKO ESTROPADAK Tolosa, 21 talde (batelak).

VILLABONAKO BANDERA Villabona, 8 talde (batelak).

«Hau gustatu ezan, beste lekuren bat bilatu beharrok aurkituko lirateke TAKekoak. Horien artean dago Ixartegieta-Balairainen egiten ari diren Iñurriko presa. Baina Tolosaldeko Aize Zaharreko bezelakorik ez dagoela diote, eta hori da joz-muga epe laburrean: «Leku pargabea da, eta presak bizia emango lioke inguruari».

Bortzikariari ere begiratzen diote. Iñurriko eta Zubizarraidi berean, lana badagolako egiteko. «Gure asmoa esparruak zabaltzea da, bai antolatzea baita, bai arraun modalitatei dagokienera (traineruak, banku mugikorra, piraguak...), Zaletasuna Ordean erortzen hedatzea ere aurrekusten dugun. Gogoia eta lana ez dira falta TAKen inguruan. Jendea eta laguntza da behar dituen. Erpresari eta norbanakoei dei egiten diete: «ongietorriak zango dira hauen diru laguntza». Baina, oro har, jende gutxiari. «Kolaboratzaileen beharra dugu. Hain denontraz dago zabalik. Arrauna gustatuz gero, hemen badago nahiko entretenimendu».

koa inongo litzateke presa berri hori, eta funtzionamendu normalean maila gorenean putzuta egongo litzateke. Arraunari artu ibili izateko ur putzua egokia mantentuz. Eurretean, aldiuz, presa automatikoki jaitziteke zero mailara.

Taldeak Eusko lantzaritzaen baitema lortu du presaren proiekturako. Agertu dituzten Udalak, jaso du aurrerokortu-tan. Baina oraindik proiektua eta haren gauzatzea inorri ez diote esleitu sailatu diote TAKekoak. «Bistan da proiektu hau ezinbestekoa dela etorkizuneko antolatut ditzatekeen jardueretarako. Eta horregatik lehentasuna izan behar du», azpimarratu dute.

Hau gustatu ezan, beste lekuren bat bilatu beharrok aurkituko lirateke TAKekoak. Horien artean dago Ixartegieta-Balairainen egiten ari diren Iñurriko presa. Baina Tolosaldeko Aize Zaharreko bezelakorik ez dagoela diote, eta hori da joz-muga epe laburrean: «Leku pargabea da, eta presak bizia emango lioke inguruari».

Bortzikariari ere begiratzen diote. Iñurriko eta Zubizarraidi berean, lana badagolako egiteko. «Gure asmoa esparruak zabaltzea da, bai antolatzea baita, bai arraun modalitatei dagokienera (traineruak, banku mugikorra, piraguak...), Zaletasuna Ordean erortzen hedatzea ere aurrekusten dugun. Gogoia eta lana ez dira falta TAKen inguruan. Jendea eta laguntza da behar dituen. Erpresari eta norbanakoei dei egiten diete: «ongietorriak zango dira hauen diru laguntza». Baina, oro har, jende gutxiari. «Kolaboratzaileen beharra dugu. Hain denontraz dago zabalik. Arrauna gustatuz gero, hemen badago nahiko entretenimendu».



Gazteluko arraunariak, arraunariaren egiteko prest. L. MONTES



Eskuineko ohiaren atzetik dago Tolosaldeko TAKeko arraunariak; aspaldi daude berri zain. L. MONTES

LIZARTZA ▶ GIZARTEA

Alondegia eraikina barrutik ezagutzeko Kultur Astea

Lizartzako herritarrek 'Alondegia herriarena eta herriarentzat' lelopean hainbat ekitaldi antolatu dituzte abenduaren 12an hasi eta hilaren 15era arte

MADDI SOROA

«Alondegia herriarena eta herriarentzat». Horixe da Lizartzako herritarrek eskatzen dutena. «Alondegia ez pribatizatu eta ez saltzea, herriak behar duelako».

Lizartzako errepidean kokaturiko Alondegia eraikina herriko haibat kultur taldeen kokaleku izan da urte askotan zehar. Orain, ordea, Udalak eraikina saldu eta bertan etxebizitzak egiteko asmoa azaldu du. Ekimen hori gelditzeko hainbat eta hainbat saiakera egin dituzte herritarrek. Azkena, hilaren 12an hasi eta 15era arte iraungo duen *Alondegia barrutik ezagutu eta Alondegiaren aldeko aldarrikapena* lelopean antolaturiko Kultur Astea izango da.

Lizartzako baserrien eta Alondegiaren historia landuko duen hitzaldiak emango dio hasiera Kultur Asteari. Atzetik, hitzaldia, antzerkia edota kantaldiak emango die pasu. Gogoratu, Sorkunde Agirrezabal eta Pablo Doneza herritarren margolanak ere ikusgai izango direla Alondegian bertan.

EGITARAUA ▶



«Alondegia ez pribatizatze» eskatu dute herritarrek. M. SOROA

Hona hemen egunez egun izango diren ekitaldien zerrenda. Gogoratu, ekitaldi guztiak Alondegia eraikinean izango direla.

ABENDUAK 12 (ASTEARTEA)

20:00. *Lizartzako baserrien eta Alondegiaren historia* lelopean hitzaldia Aranzadiko Juanxto Agirrerren eskutik.

ABENDUAK 14 (OSTEGUNA)

20:00. *Hiru herri hiru arazo* lelopean hitzaldia izango da Ordizia, Oiartzun eta Lizartzako ordezkariekin. Ordiziarrak *Oiangu publikoa bizirik* gaia jorratuko du, Oiartzuarrak *arau ordezkatzailen arazo larriak* izango ditu mintzagai eta Lizartzatarra *Alondegia herriarena eta herriarentzat* gaiaren inguruan jardungo da.

ABENDUAK 15 (OSTIRALA)

Alondegiaren aldeko aldarrikapen eguna.

19:00. *Asto bat hipodromoan* ipuin kontaketa Gorringo antzerki taldearen eskutik. Ondoren afari-merienda izango da haur eta helduentzat. Hau amaitzeaz bat, kantaldiaz gozatzeko aukera izango da.

ERAKUSKETA

Alondegia barrutik ezagutzeko egunetan zehar Sorkunde Agirrezabal eta Pablo Donezaren margolanak izango dira ikusgai egitarauko egun eta orduetan.

IBARRA ▶

Gaur, doako hip-hop gaua 22:00etan Gaztetxean

Bost musika taldeen emanaldiaz gain, Break dance eta graffitiak izango dira

ERREDAKZIOA

Ibarrako Gaztetxeak antolatu ta hip-hop gaua izango da gaur 22:00etan Gaztetxean bertan.

Guztira bost musika talde ariko dira giroa berotzen, hala nola, A Duras Penas talde hernaniarra, Jaula de Grillos musikari donostirrak, Irungo La Orden Kolektiboa taldea, 4 N L Ring talde ordiziarra eta baita Aritz Sound System ere.

Hip-hop-a eta DJ-ez gain izango da besterik, ordea, gaur iluntzean Gaztetxean, izan ere, graffitilariak eta break dance dantzariak ere izango dira bertan.

Gogoratu, ekitaldi hau Gaztetxearen XIII. urteurrenaren ospakizuneko egitarauaren barnean kokatzen dela. Gaztetxearen urteurrenaren ospakizunak gaurtik hasita abenduaren 17ra bitarte iraungo du. Hainbat ekitaldi izango dira egun horietan zehar, AHTren inguruko bideo emanaldia, esaterako.

urteurrenak ▶

I. urteurrena
Estanis Agirre Esposito

Goian bego



oharra ▶ Senideek bere arimaren alde otolitz bat eskatzen dizuegu, eta arren etor zaitezte abenduaren 10ean, Segurako Andre Mari Jasokundearen eliz parrokiari, 12:00etan egingo den elizkizunera

SEGURA, 2006ko abenduaren 9a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guzfitan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GURE IRRATIAk jarraitu behar du zure sustenguekin

Zure laguntza:
3035 00 5987 0590 05 2623 Euskadiko Kutxa
gureirratia@kartasuna@euskalirratia.info
Tel. [0033] 616237224

AMASA ▶ KULTURA

Baserrien historia eta arkitektura aztergai

Amasako kultur taldeak ekitaldi pare bat antolatu ditu bertako baserriak hobeto ezagutzeko helburuarekin



Amasako Andrategi baserria izango da irteeran bisitatuko dutenetariko bat. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Amasako baserrien historia eta arkitekturaren inguruan irteera eta hitzaldia antolatuta dituzte biharko. Goizeko 09:30ean plazara atera eta hainbat baserriren historia, arkitektura etabar ezagutuko dituzte. Honen ondoren, 12:00etan, Juantxo Agirre Mauleonek, Aranzadi Zientzia elkarteko kideak, hitzaldi bat eman du Kultur Etxean Amasako baserrien historia eta arkitektura lemapean.

«Herriko Kultur Etxean ideia hau polita izan zitekeela pentsatu genuen, ez baikenuen horrelakorik antolatuta», azaldu du Josune Arretxeak, Amasako kultur taldeko kideak. Erabakia hartu eta gero, Juantxo Agirre Mauleonekin hitz egin zuen kultur taldeak. «Baiezkoa eman zigun. Berak prestatuko zuela eta bera etorriko zela hitzaldia ematera, alegia». Antolaketa dagokionez, baserrien historia ezagutzeko orduan, Amasako baserri guztietatik batzuk aukeratu behar izan zituzten. «Amasako baserrietako zerrenda bat egin genuen, aztertzeko interesgarrienak zein izango liritekeen ikusteko, baina moztu egin behar izan genuen, azkenean baserri guztiek baitaukat zer bait». Eguerdialdera plazara itzultze-

koak direnez, eta bi ordu 1/2 erdi besterik ez dituztenez, igandeko 6 baserri aukeratu dituzte: Larrañaga, Musturi-Azpi, Mikeliartza, Muñoki, Andrategi eta Eguzki-alde.

«Zubia dela-eta jende asko kanpora joan da, baina bat baino gehiagok penaz gelditu dituzte. Larrañaga, Musturi-Azpi, Mikeliartza, Muñoki, Andrategi eta Eguzki-alde. «Zubia dela-eta jende asko kanpora joan da, baina bat baino gehiagok penaz gelditu dituzte. Larrañaga, Musturi-Azpi, Mikeliartza, Muñoki, Andrategi eta Eguzki-alde. «Zubia dela-eta jende asko kanpora joan da, baina bat baino gehiagok penaz gelditu dituzte. Larrañaga, Musturi-Azpi, Mikeliartza, Muñoki, Andrategi eta Eguzki-alde.

Larrañaga baserria

Larrañaga baserriak 300 bat urte ditu. Garai batean bertan

errotak zegoela esaten dute, eta Tolosan behar zen garia bertan jotzen zutela. Beharbada horregatik atzealdeko lurra altxatu gero garia jotzen zen lekua azalduko litzatekeela esaten dute herrian. Baserriaren atzekaldean garai bateko arku bat dago, baina sukaldeko leihoa da bitxikeri nagusia. Arku forma dauka eta Aranzadi elkar-tekoak behin baino gehiagotan joan dira bertara argazkiak hartzera. Garai batean horrelako leiho gehiago omen zituen, armaria ere ba omen zuen, baina duela 90 urte baserria berritzeko egindako konponketen ondorioz denak galdu zituen.

Horrelako bitxikerien inguruan ariko dira bihar antolatuko ekitaldietan.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Dituzun kexa, albiste, iradokizun, proposamen hahiz iritziak emateko aukera zabalzen dizu atal honek. Hau argitaratu nahi izanez gero, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza NAN zenbakia eta izena eman beharko dituzu testuaren fidagarritasuna ziurtatzeko.

iragarki laburrak ▶

LANA

Iturgina. Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. Interesatuak deitu telefono zenbakia honetara 656 41 68 08.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi, 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Intereatuak deitu honako telefono zenbakira 943 65 41 43.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu Laskorain 3. kalean.
Salgai (Tolosa). Espainiako eskolatu lurren.
Salgai (Tolosa). Belardenda, Kale Nagusian, negozioa marxan.
Salgai (Tolosako lurren). Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokal bikia. Oso modu onean.
Salgai (Tolosa). Lokalak Enperadore kalean eta kale nagusian.
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, Irrekiak Ibaran.
Salgai (Tolosa). Garajeak, Leidor azpian.
Salgai (Tolosa). Pisu lurre auzoan.
Salgai (Tolosa). Pisu Gososabel kalean.
Alokatzeko. Garajeak, Araba etorbidean eta Babiller Zaldibian (geltoki ondoan).
Alokatzeko. Lokalak, Arbol de Gernikan, Alirin eta Laskorain kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

KULTURA ▶

Eskusoinu Jaialdiko urretariko bat, Irurara

Loatzo musika eskolako Lore Amenabarrek irabazi zuen urrea bere kategorian

N. GARZIA

Arrasaten egun hauetan izaten ari den Nazioarteko Eskusoinu Jaialdian Lore Amenabar irurarrak urrezko domina irabazi du bere kategorian. Lehiaketa oraindik amaitu ez den arren, Amenabarren txanda asteazkenean izan zen, 10-12 urte bitarteko kategorian lehiatu baitzen.

Arrasateko Nazioarteko Eskusoinu Jaialdian 3 modalitate ezberdin daude: Nazioartekoa, Gipuzkoakoa eta Gipuzkoako Jaialdia. Gipuzkoakoan eskualdeko herri askok hartu zuten parte, eta gaur amaituko den Nazioartekoa Lehiaketan

ere kanpoko musikariak ez dira faltatu.

Lore Amenabar Loatzo musika eskolako ikaslea da, eta jaialdi honetara aurkeztu den lehenengo aldia du: «maila altua dago, baina Lore oso saiaturia da», azaldu du Ainhoa Elizondok, bere irakaslea. Epaimahaiak emandako puntuazio ikusi besterik ez dago, 25 puntutatik 23 lortu baitzuten.

Loatzo musika eskolari dagokionez, bertakoak aurreko urtean aurkeztu ziren lehenengo aldiz. Aurtengo emaitza ikusi ondoren, hurrengo urtean ere parte hartuko dutela azpimarratu du Ainhoa.

GIZARTEA ▶

Hiri hondakinei buruzko gida kalean da jada

Tolosaldeko Mankomunitateak argitaratu du eta herriz herri egingo dute banaketa

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Mankomunitateak hiri hondakinei buruzko gida bat kaleratu du, *Nola murriztu ditzaket nire hondakinak? Eta zer egin sortutakoekin?* lemapean. Bertan, ekologiarantz oinarritutako diren hiru ardatz jorratzen ditu: murriztu, berrerrabili eta birziklatu.

Liburuxkak erosteta jasangarri eta ez-jasangarriaren artean dagoen aldearen inguruan gogoeta egitera bultzatu nahi du jendea, eta era bere-

an, edukiontzia ezberdinen erabilpenari dagozkion zantzak argitzea du helburu.

Honen helburua azken urteetako datuen joera pixkanaka aldatzea da, gaikako bilketa eta birziklatze portzentaia ikotzen doazen arren, hondakinen kopurua ere goraka baitoa. Hilabete honetan zehar, eskualdeko udalerrri guztietan gidaren banaketa kanpaina burutuko da.

Ibarran hasiko da banaketa, astelehenean, abenduaren 11n, herriko plazan, 16:30etik 18:30era.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amasa. Baserrien eta historia eta arkitektura irteera-hitza, bihar. Egitaraua: 09:30ean, irteera Amasako plazatik: hainbat baserrien historia eta arkitektura ezagutzeko; 12:00etan, hitza Amasako Kultur Etxean. Juanxo Mauleon Aranzadi zientzia elkarteko arkeologoaren eskutik: *Amasako baserrien historia eta arkitektura.*

Ibarra. Belabieta Udal kirolegia zabalik egongo da gaur, goizeko 10:00etatik 13:00etara bitarte.

Tolosa. Txuleta festa, Zerkausian, 20:00etatik 22:00etara. Orue, Julian, Burrentzi eta Nikolas erretegiak sukaldariak afaria eskainiko dute.

Botarri, Bidebide, Beti-Alai eta Astelena jatetxeetan ere emango dituzte afariak. Bihar arte izango da zabalik (biharkoan, bazkariaK izango dira).

Tolosa. Oderizera mendi irteera eta ondoren urte bukaerako babarrun jatea antolatatu du Alpino Uzturrek iganderako. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5. 943 652789).

Tolosa. Iñaki de Juana euskal presoari elkartzasuna adierazteko eta eskualdeko presoaren egoera salatze gose greba egiten ari dira 12 lagun musika eskolan. Bihar amaituko dute manifestazio batekin, 19:30etik aurrera, Triangulo plazan.

ZINEMA

Tolosa. 17:00etatik aurrera, *Mixina* filma ikusteko aukera izango da, Leidor aretoan. Sarrerak 2 euro balioko du.



Gernika-Lekeitia irteera, Aizkardiren eskutik

VILLABONA ▶ Aizkardi mendi elkarrekin Mendizale Astea egin zuen iragan hilabetearen bertan ikastaroak, hitzaldiak eta bestelakoak antolatu zituztenek datorren asteburuan, hilak 17, mendi irteera bat antolatu dute Gernika-Lekeitia. Ber-

tara joan nahi dutenek izena eman beharko dute, elkartean bertan edo 943 694458 telefonoan (Joxan) osteguna baino lehen. Santimamifetik abiatuko dira Lekeitia heldu arte. Ibilbideak sei ordu inguru iraungo ditu. HITZA

ERAKUSKETAK

Alegia. Hilaren 10era arte Pilarxo Elozegi margolariaren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira, asteartetik igandera bitarte, tabernaren ordutegiaren baitan. **Tolosa.** *Esperientziak* izeneko, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrekin bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112..
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irrateria
(107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitza hegan.*

Goiko irrateria
(107.0 FM)
 12:00. *kornerra.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan
 Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza
 Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
 ezkontzak, jaioberriak...



jantzi
hitzaren
jertseak

HITZAren egoitzetan salgai